


2014ko abuztuan, EAEko industriako prezioek ez zuten aldaketarik izan aurreko hileko prezioekiko

Aurreko urteko prezioekiko (2014ko abuztua 2013koaren aldean) % 0,4 jaitsi ziren

EUSTATen datuen arabera, Euskal AEko industri prezioek ez dute aldaketarik izan (% 0,0) 2014ko abuztuan, aurreko hileko prezioekiko. Datu horiek kontuan hartuta, abuztuko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza) % 0,4 jaitsi da.



Sektorekako azterketa xehatuak agerian uzten du, 2014ko abuztuan, honako adar hauek igo dituztela gehien prezioak, aurreko hilaren aldean: Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (% 1,3ko igoera); Ehungintza industrial, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza (% 1,0ko igoera); eta Industria Kimikoa (% 0,9ko igoera). Aitzitik, prezioak gehien jaitsi dituzten sektoreak dira, batetik, Koke-lantegiak eta petrolioaren birfinketa (% 1,9ko jaitsiera), eta, bestetik, Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria (% 0,9ko jaitsiera).

Urtetik urterako datuei dagokienez (2014ko abuztua 2013koaren aldean), prezioak gehien igo dituzten adarrak hauek izan dira: Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (% 2,7ko igoera) eta Zuraren, paperaren eta arte grafikoen industria (% 0,7ko igoera). Aitzitik, jaitsi egin dira, besteak beste, honako sektore hauetako prezioak: Koke-lantegiak eta petrolioaren birfinketa (% 5,3ko

jaitsiera), Erauzketa-industriak (% 2,8ko jaitsiera) eta Garraio materialaren fabrikazioa (% 0,9ko jaitsiera).

Xede ekonomikoaren arabera ondasun-sailkapenari jarraikiz, sektore-talde handiek abuztuko prezioetan –aurreko hilekoekiko– izan duten aldaketa negatiboa izan da Energia taldearentzat, prezioak % 0,4 jaitsi baititu; aitzitik, Bitarteko ondasunak taldeak % 0,4 igo ditu prezioak, eta Ekipo ondasunak taldeak, berriz, ez du aldaketarik izan (% 0,0). Kontsumo Ondasunak taldeko prezioak, oro har, % 0,5 jaitsi dira; izan ere, jaitsi egin dira bai Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren prezioak (% 0,6ko jaitsiera), bai Kontsumo-ondasun iraunkorrenak (% 0,3ko jaitsiera).

Ondasun-talde handi hauen prezioen urtetik urterako aldaketa negatiboa izan da Energia taldearentzat (% 1,9ko jaitsiera) eta Ekipo Ondasunak taldearentzat (% 0,6); aitzitik, Bitarteko ondasunak taldeak % 0,2ko igoera izan du. Bestalde, Kontsumo Ondasunak taldeari oro har dagozkion prezioak % 0,5 jaitsi dira. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorren prezioak %1,3 jaitsi dira, eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak, berriz, % 0,2.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak(p). 2014ko abuztua

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2014abu / 2014uzt	2014abu / 2013abu	2014abu / 2013abe
INDIZE OROKORRA	109,4	0,0	-0,4	-0,5
Sektore-banaketa				
Ateratze-industriak	93,4	0,1	-2,8	-1,2
Manufaktura-industria	106,9	-0,2	-0,9	-0,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	129,4	1,3	2,7	-1,4
Ondasunak, helburu ekonomikoka				
Kontsumo-ondasunak	104,3	-0,5	-0,5	-0,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	99,8	-0,3	-1,3	-1,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	105,9	-0,6	-0,2	-0,5
Ekipo-ondasunak	103,6	0,0	-0,6	-0,1
Bitarteko ondasunak	105,1	0,4	0,2	0,5
Energia	126,4	-0,4	-1,9	-2,4

Oinarria 2010=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Informazio gehiago lortzeko:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

EAEko industria-prezioen indizeari (IPRI) buruzko prentsa-ohar gehiago

EAEko industria-prezioen indizeei (IPRI) buruzko datu-basea